

## 02.

### LANKETA PROZESUA

2017. urteko apirilean emakume eta gizonezkoen berdintasunerako IV Planaren lantze prozesua martxan jartzen da. Gizarte ongizate, hezkuntza eta gazteria sailak bultzatutako prozesu parte hartzaile baten bitartez. Honetan udaletxeko langileak, gizarte, hezkuntza, zein, osasun erakunde ezberdinak, Berdintasun Udal kontseilua eta Berdintasun Sail-arteko Batzordea parte hartu dute.

#### Apirila-uztaila

Informazio kualitatibo, zein, kuantitatiboaren bilketa. III Planaren ebaluazioa osatu eta berdintasun batzordean, zein, sail-artekoan aurkeztu izan da. Era berean, udal mailako datu kuantitatiboaren bilketa osatu da eta bertan, langileriaren ezaugarriak eta Irungo datu sozioekonomikoak kontuan hartu dira.

4 eztabaida talde osatu dira, (Osasuna, Hezkuntza, Berdintasun Batzordea eta sail-arteko Batzordea), hauetan 41 pertsonen parte hartu zuten (29 emakume eta 12 gizon). Baita 8 elkarrizketa baliozko informazioa zuten pertsonekin (3 gizon eta 5 emakume). Momentu honetan, etorkizuneko Irungo Udalaren IV berdintasun Planaren ekintza oinarriak ezartzen dira.

EZTABAIDA TALDEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	OSAKETA
Osasuna	1	3	4	Osasun mentaleko zentroko, 2 anbulatorioetako eta Bidasoako eskualde ospitaleko ordezkaria.
Hezkuntza	2	6	8	Erain Ikastetxea, Irungo La salle, CIFP Bidasoa LHII, CEIP Eguskitza BHI, CEIP Txingudi Ikastola, HLHI, Toki Alai BHI eta Irungo Berritzeguneako ordezkariak
Berdintasun Batzordea	4	16	20	
Sail-arteko Batzordea	5	4	9	

ELKARRIZKETAK
Irungo udaleko Idazkari nagusia.
Informazioaren Gizarte, Hiritarren Parte-Hartze eta Auzoen Sailaren Zuzendaria.
Hiriaren Bultzada, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Zuzendaria.
Kultura eta Kirola Sailaren Zuzendaria.
Oinarrizko Arretaren Arduraduna - Gizarte Ongizatea).
Irungo Udaletxeko Hizkuntza normalkuntzaren Arduraduna.
Irungo Berritzegunea.
Arrats

### Abuztua - Iraila

Berdintasunerako Planaren lehen zirriborroa osatu egiten da, lehendabizi Planaren sail erantzulearekin negoziatzeko eta ondoren udaleko gainontzeko sailekin, sail-arteko Batzorde eta Berdintasun Kontseiluaren bitartez.

### Urria – Azaroa

Planaren lehenengo zirriborroaren kontraste lana osatzen da honen ardua duen Sailarekin batera. Ondoren Berdintasun batzorde eta sail-arteko batzordetan Planaren zirriborroa aurkezten da, beharrezkoak diren ekarpenak egin ditzaten. Era berean, Osasun eta hezkuntza eztabaida taldeko parte hartzaileei dokumentua aurkeztu zitzaizen honen kontrastea osatzeko. Behin ekarpenen analisia osatua, Berdintasunerako IV Planaren idatzia osatzen da.

### Abendua

Plana Emakunderi igortzen zaio, honek 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legearen 15.4 artikuluan agertzen denarekin bat datorren hala ez erabaki dezan. Txosten baten bitartez Emakundek Planaren edukiak EAEko VI Berdintasun Planaren esku-hartze ildoetara egokitzen den hala ez egiaztatzen du.

Bukatzeko Udal bilkuran aurkezten da honen onarpenerako.